

## ENERGIA-ZIURTAGIRIA

- ▶ Zer da energia-ziurtagiria? Eta energia-etiketa?
- ▶ Nolakoak dira energia-ziurtagiria eta etiketa?
- ▶ Nola kalkulatu da?
- ▶ Zertarako balio du?
- ▶ Nork jaulki dezake ziurtagiria eta etiketa?
- ▶ Nahitaezkoa al da?
- ▶ Zein eraikinek lortu behar dute ziurtagirira?
- ▶ Salbuespenen bat al dago?
- ▶ Noiz eman behar da energia-ziurtagiriari buruzko informazioa?
- ▶ Zein legek arautzen du?
- ▶ Autonomia Erkidegoan erregistratu behar al da?
- ▶ Zenbaterako balio du?
- ▶ Derrigorrezkoa al da ziurtagiri hau elektrizitatea kontratatzekeo?
- ▶ Zenbat balio du?

## ZER DA ENERGIA-ZIURTAGIRIA? ETA ENERGIA-ETIKETA?

Energia Efizientiaren Ziurtagiria modu objektiboan edozein etxebizitza, eraikin, saltoki, eta abarren energia-efizientzia ebaluatzen duen txosten bat da. Higiezin baten energia-jokabidea A-tik (energia-efizientzia handiena) G-raino (emaitzarik kaskarra) doan eskala batean sailkatuz.

Lortutako emaitza energia-etiketara ekartzen da. Energia-jokabide hori eraikinaren ingurutzaileraren ezaugarriak aintzat hartuta aztertzen da, itxiera opakuek (fatxada, mehelin, zolata, estalki, etab.) eta baoek (leiho, ate, argizulo, etab.) definituta, baita instalazio termikoen (klimatizazio, hozte eta aireztapen), argizatze eta ur beroa sortzekoen mota eta efizientzia ere.

## NOLAKOAK DIRA ENERGIA-ZIURTAGIRIA ETA ETIKETA?

Hona Energia Efizientiaren Ziurtagiri eta Energia Etiketaren formatu ofizialak:

Energia Efizientziaren Ziurtagiri

**CERTIFICADO DE EFICIENCIA ENERGÉTICA DE EDIFICIOS EXISTENTES**

**DESCRIPCIÓN DEL OBJETO Y DE LA PARTE QUE SE CERTIFICA**

Identificación del edificio:		Código Postal	
Dirección:		Comunidad Autónoma	
Propiedad:		Año de construcción	
Código Catastral:		Código de Edificio	
Número de registro (Comunidad Autónoma, Provincia) / Situación:			

**DESCRIPCIÓN DEL OBJETO QUE SE CERTIFICA**

Uso del edificio:		Uso del edificio	
Categoría:		Categoría de edificio	
Código de uso:		Código	
Código de categoría:			

**DATOS DEL SISTEMA DE CALIFICACIÓN**

Tipo de edificio:		Tipo de edificio	
Código de tipo:		Código	
Código de uso:		Código	
Código de categoría:		Código	
Código de uso:		Código	
Código de categoría:		Código	
Código de uso:		Código	
Código de categoría:		Código	
Código de uso:		Código	
Código de categoría:		Código	

**CLASIFICACIÓN ENERGÉTICA GLOBAL DEL EDIFICIO EN CONDICIONES NORMALES**

Clasificación energética global del edificio en condiciones normales:	
Escala de clasificación energética:	

El presente certificado energético certifica que el edificio cumple con la clasificación energética del edificio en la parte que se certifica de acuerdo con el procedimiento establecido por el sistema vigente a que se refiere el título que figura en el presente documento, en el momento de su emisión.

Fecha: \_\_\_\_\_

Firma del titular del objeto:

Firma del técnico certificador:

Aprobación de la descripción de los datos técnicos energéticos del edificio:  
 Aprobación de la clasificación energética del edificio:  
 Aprobación de la información para el usuario de la eficiencia energética:  
 Aprobación de la información, comprobaciones e inspecciones realizadas por el técnico certificador.

Regulado por el Real Decreto 139/2007.

Año: 2023      Fecha de emisión: 2023/08/01      Página 1 de 1

Energia Etiketaren

**CALIFICACIÓN ENERGÉTICA DEL EDIFICIO TERMINADO ETIQUETA**

**DATOS DEL EDIFICIO**

Identificación del edificio:		Tipo de edificio:	
Código de tipo:		Código:	
Código de uso:		Código:	
Código de categoría:		Código:	
Código de uso:		Código:	
Código de categoría:		Código:	
Código de uso:		Código:	
Código de categoría:		Código:	
Código de uso:		Código:	
Código de categoría:		Código:	

**ESCALA DE LA CALIFICACIÓN ENERGÉTICA**

Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	
Consumo de energía primaria no renovable (kWh/m²/año):		Emitidos (kg CO <sub>2</sub> /m²/año):	

NÚMERO: \_\_\_\_\_

Fecha de emisión: 2023/08/01

IBERDROLA

España 2023

## NOLA KALKULATZEN DA?

Energia-ziurtagiria hura kalkulatzeko berariaz garatutako informatika-programen bitartez lortzen da.

Eraikinen eraikuntza-ezaugarriei buruzko informazioa eskatzen dute, baita etxebizitza bisitatuz jasotzen diren beste hainbat datu ere.

Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioa eta Sustapen Ministerioak aintzatetsi behar dituzte programa horiek.

## ZERTARAKO BALIO DU?

Etxetresna elektrikoak erostean, ohiko erabilerak dakarren urteko energia elektrikoaren kontsumoa aldera dezakegu; halaxe, etxebizitza bateko energia-ziurtagiriak higiezinaren energia-gastuaren berri ematen digu eta, gainera, hainbat hobekuntza-neurri jakinarazten dizkigu, gure kalifikazioaren letra hobetzeko modua izateko eta, beraz, energia-fakturen zenbatekoa gutxiagotzeko.

## NORK JAULKI DEZAKE ZIURTAGIRIA ETA ETIKETA?

Energia-efizientziaren ziurtagiria eta etiketa eskumena duen teknikari batek jaulki dezake: arkitarko, arkitekto tekniko, ingeniari edo ingenari tekniko batek, proiektuak egin ala obrak zuzentzeko eta eraikuntza-lanen gauzatzea zuzendu edo bere instalazio termikoetako proiektuak burutzeko gaitasuna dutenak, Eraikuntzaren Ordenazioari buruzko azaroaren 1999/38 Legean ezarritakoaren arabera.

## NAHITAEZKOA AL DA?

2013ko ekainaren 1etik aurrera nahitaezkoa izango da eraikinen edo horien parte baten erosle edo alokatzaileen eskura energia-efizientzia egiaztagiri bat jartzea (beti ere alokairuek lau hilabete baino gehiagoko iraupena dutelarik; oporraldietarako alokairua, hortaz, bazter geratzen da).

Halaber, energia-etiketak salmnetara edo alokairu-publizitatearekin batera joan beharko du, higiezinaren ezaugarri bat gehiago balitz bezala. Saldua izatekotan, saltzaileak erosleari ziurtagiriaren originala eman beharko dio notariotzan. Alokairuaren kasuan, alokera-kontratuari fotokopia bat atxiki beharko dio.

Betebehar horietakoren bat urratzean 3.000€ arteko zigorrak ekar ditzake, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren arabera.

## ZEIN ERAIKINEK LORTU BEHAR DUTE ZIURTAGIRIRA?

3 kasu daude:

- ▶ Eraikuntza berriko eraikinak.
- ▶ Honezkero existitzen diren eta jabe/alokatzaile berri bati saldu edo alokatzen zaizkion eraikinak edo eraikinen parteak, indarrean den egiaztagiririk ez badute.
- ▶ Erakunde publiko batek 250 m<sup>2</sup>-ko guztizko azalera edo gehiago hartzen duen eraikinak edo eraikinen parteak, publikoak maiz erabiltzen badu.

IGO

**SALBUESPENEN BAT AL DAGO?**

Ez da efizientzia-ziurtagiria derrigorrez eduki behar 50 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko azalera erabilgarria duten eraikin isolatueterako, edo 4 hilabete edo gutxiagorako alokatzen badira, edo garrantzizko zaharberritzeak egiteko edo eraitsiak izateko erosten direnetarako, gurtza- eta erlijio-jarduera tokietarako, eta bere arkitektura- edo historia-balioarengatik babestutako eraikin eta monumentuetarako.

IGO

**NOIZ EMAN BEHAR DA ENERGIA-ZIURTAGIRIARI BURUZKO INFORMAZIOA?**

Saldu edo alokatzera zuzendutako eskaintza, promozio eta publizitate guztian hartzailearen eskura egon beharko du. Energia-ziurtagiria, kontratuarekin batera, erosketa/salmenta edo alokairu-egintzetan eman beharko da.

IGO

**ZEIN LEGEK ARAUTZEN DU?**

**235/2013 Errege Dekretuak** (\*), apirilaren 5koa, eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena. 2013ko apirilaren 13ko EAOn argitaratua..

IGO

**AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERREGISTRATU BEHAR AL DA?**

Bai. Autonomia Erkidego bakoitzak energia-efizientziaren ziurtagiriak inskribatzeko erregistro bat abian jarriko du, izaera publikokoa, eraikinen energia-efizientziari buruzko informazioa emateko.

Zenbait Autonomia Erkidegok tasa bat kobratzen dute egiaztagiri bakoitza inskribatzeagatik, 0-20€ artean joan daitekeena etxebizitza baterako

IGO

**ZENBATERAKO BALIO DU?**

Energia-efizientziaren ziurtagiriak 10 urterako balioa du. 10 urte horiek igarota, jabeak ziurtagiria berritzeko erantzukizuna du. Higiezinaren ekintzaren bat burutuz gero, ziurtagiria 10 urteko epe hori amaitu baino lehenago eguneratu dezakezu.

IGO

**DERRIGORREZKOA AL DA ZIURTAGIRI HAU ELEKTRIZITATEA KONTRATATZEKO?**

Elektrizitatea kontratatzeke ez da derrigorrezkoa energia-efizientziaren ziurtagiria edukitzea. Higiezinak salerosi edo alokatzeke bakarrik da nahitaezkoa. Gasa eta ura kontratatzeke ere ez da derrigorrezkoa izango.

IGO

**ZENBAT BALIO DU?**

Energia-ziurtagiriaren kostua aldatu egin daiteke ziurtatu beharreko higiezinaren arabera (eraikin bateko etxebizitza, familiabakarreko isolatua ala atxikia, bulegoa, saltokia...).

Beste zenbait faktore ere aintzat hartzen dira, higiezinaren azalera adibidez, edo jabeak planoak dauzkan ala ez. Lortu energia-ziurtagiria 100m<sup>2</sup>-ko etxebizitza baterako 100€tik hasita!